



FECHA/EGUNA

2022-02-07/07-02-2022

AREA/ARLOA

Lurraldea/Territorio

ASUNTO/GAIA

Revisión PTP Área funcional Bilbao
Metropolitano

DESTINATARIO/JASOTZAILEA

DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA
Dptº de Desarrollo Territorial
Director General de Desarrollo Territorial
Gorka Estebez Mendizabal
BILBAO

REF/AIPAMENA: DIPUTACIÓN PTP BILBAO
METROPOLITANO

Exp. 2021-00571

Ref. OT.001-2016

Zure idazkian (sarrera-erregistroko zk.: G88202100954113S,) adierazitakoari erantzunez, honekin batera, Udal Arkitektoak emandako txostenaren kopia bidali dizut, ondore egokiak izan ditzan.

Begirunez,

En relación con su escrito con registro de entrada G88202100954113S, adjunto le remito copia del informe suministrado por el Arquitecto, a los efectos oportunos.

Atentamente,

ALKATEA/EL ALCALDE
Xabier Zubiaur Agirre



Tlfno: 94 453 5172
Fax: 94 471 03 24
C.I.F. P4809800H

Hirigintza/Urbanismo
Goronda Gane bidea, 1
48150 SONDIKA

www.sondika.org

ARKITEKTOA

ERREF:

**Bilboko Lurralde Plan Partziala hasierako onespena.
Jendaurreko informazioa eta entzunaldiaren prozedura.**

2022ko otsailak 7.

Txostena

1. 2021eko Urriaren 26an sarrera eman zitzaion Udal Erregistroan Bizkaiko Foru Aldundiko Lurralde Garapenerako Zuzendaritza Nagusia-ren Zuzendari Nagusiak Udalari igorritako Bilbo Metropolarreko Alde Funtzionalaren LPParen berrikuspenaren hasierako onespenari buruzko jakinarazpenari, horren edukia honako hau zela:

Gaia: Bilbo Metropolarreko Alde Funtzionalaren LPParen berrikuspenaren hasierako onespena.

Gobernu Kontseiluaren 2021eko urriaren 5eko erabaki baten bidez, Bilbo Metropolarreko alde funtzionalaren lurralde plan partzialaren berrikuspenaren agiria hasiera batean onetsi zen.

Martxoaren 24ko 46/2020 Dekretuak (lurralde-antolamenduko planak eta hirigintza antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzekoa) 15. artikuluan ezarritako legezko izapidea betetzeko, honen bidez jakinarazten dizut 45 egun balioduneko epea duzula agiria dela-eta egoki deritzozun oharrak, iradokizunak eta proposamenak egiteko.

Espedientean dauden dokumentuak helbide honetan dituzu:

www.bizkaia.eus/bilbao-metropolitanoa

2. Horren ostean, 2021eko Abenduaren 29an, gai honekiko Bizkakiko Foru Aldundiko Lurralde Garapenerako Zuzendaritza Nagusia-ren Zuzendari Nagusiak igorritako beste jakinarazpen bat heldu zitzaion udalari.

Gaia: Bilbo Metropolarreko Alde Funtzionalaren LPParen berrikuspenaren hasierako onespena 2021eko abenduaren 21eko Gobernu Kontseiluaren Foru Erabaki bidez, Bilbo Metropolarreko eremu funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren berrikuspena jendaurrean jartzeko epea luzatzeko agindua eman da. Epe berria 22 egun baliodun gehiago luzatuko da, egun ezarrita dagoen egunaren biharamunetik kontatzen hasita; beraz, azken data 2022ko otsailaren 9a izango da.

Aipatutako Foru erabakia helbide honetan dago:

www.bizkaia.eus/bilbao-metropolitanoa

3. Hasiera batean Onestutako Bilbo Metropolarreko Alde Funtzionalaren LPParen berrikuspenaren dokumentuak Sondikar dagoikonez, orohar bat dator Sondikako HAPOAk adierazitakoarekin.

Hala ere, badagoz gai batzuk non egun Udalak arautu duenarekiko aldaeraren bat proposatzen duen.

Txosten honen xedea, gai hauekiko alegazioak proposatzea da.

4. Hasiera batean Onestutako Bilbo Metropolarreko Alde Funtzionalaren LPParen berrikuspenaren dokumentuak proposatutako Sondikako Hirigintza Antolamendurako HAPOarekin bat ez datozen gaiak honako hauek dira:

4.1. HIRI HAZKUNDEAREN PERIMETROAREN DEFINIZIOA.

- **HIRI HAZKUNDEAREN PERIMETROA**

MEMORIA

6. HIRI-HABITATA

6.3. HIRI-HABITATAREN ETA KOKAGUNEEN EREDUAREN DESKRIBAPENA

6.3.1. Hiri Hazkundearen Perimetra (HHP).

EAeko LAGen 11. artikuluen arabera, LPPak hiri-hazkundearen perimetra (HHP) bat ezartzen du BMEFn. Hiri-hazkundearen perimetra gaur egun dagoen eta LPParen indarraldirako aurreikusita dagoen hiri-orbanaren mugaketa da, ingurune naturalaren okupazioa mugatzen duena, hura babestu eta zaintzeko.

LPPak eremu urbanizatuaren inguruko HHPa definitzen du, ingurune fisikoaren antolamendu-kategoriekin bat etorritik, LAGen Memoriaren 6.3 atalean ezarritakoaren arabera. Perimetra horrek hirigune bakoitzaren espazio urbanizatuaren etorkizuneko hedadurarik handiena markatzen du, eta udal-planek doitu ahal izango dute.

LPPak HHPa mugatzen du, kontuan hartuta egungo hiri-orbanaren morfologia eta hazteko aukerak, bai eta inguruko lurren ezaugarri fisikoak eta ekologikoak ere. HHPTik kanpoko hiri-inguruan ez da aurreikusten hirigintza-okupazioaren beharrik LPParen epemugan. LAGen Ingurune Fisikoaren Gidalerroan xedatutakoaren arabera, hirigintza-erlaldaketa debekatuta duten lurak HHPTik kanpo geratzen dira.



Tlfno: 94 453 5172
Fax: 94 471 03 24
C.I.F. P4809800H

Hirigintza/Urbanismo
Goronda Gane bidea, 1
48150 SONDIKA

www.sondika.org

HHPren definizioak lurzoru urbanizagarriaren balizko desklasifikazioen planteamendua justifika dezake. Zentzu horretan, LPPak Getxon eta Derion bi eremu zehatz desklasifikatzea gomendatzen du.

Kokaguneen Ereduaren helburu estrategikoaren arabera, eta lurraldearen mugak eta natura- eta landa ingurunearen gaineko eragina saihesteko irizpidea kontuan hartuta, LPPak gomendatzen du lurzoru urbanizaezinaren azalerak ahal den neurrian ez garatzea. Ildo horretan, udal-plangintzari honako hau gomendatzen zaio:

- a) Garapen berriak lehendik dagoen hiri-bilbean txertatzea, hura osatuz, lurzoruaren erabilera intentsitate txikiko eremuak dentsifikatuz, eta hutsik dauden edo erabilera berriak har ditzaketen espazioak berrituz.
- b) Lehenetsuna ematea garraio-sistemetara sartzeko guneen inguruan kokatutako dentsifikazio- , berrikuntza- edo hazkunde-jarduketeki, eta metro-geltokietatik, aldirietako saretik eta hiriarteko tranbietatik oinez irits daitezkeen eremuak lehenestea, eskaera handiko zuzkidurak eta ekipamenduak kokatzeko.
- c) HHPren definizioaren arabera, bizitegitarako hiri-dinamiken edo jarduera ekonomikoen ondorioz zaharkituta geratu diren lurzoru urbanizagarriak balio estrategiko handiko nekazaritzako eta abeltzaintzako lurzoru urbanizaezin gisa sartzeko aukera berrikustea.
- d) HHPren barruan lurzoru berriak okupatu behar badira, horien beharra eta egokitasun baldintzak justifikatu beharko dira:

- urak hartzeko arriskua ez izatea,
- hiri-bilbearen jarraian kokatuta egotea,
- % 15etik beherako batez besteko maldak dituztenak,
- natura- edo nekazaritza-baliabide baliotsuak ez izatea, LPP honetako Antolamendu Arauetan ingurune fisikoari eta azpiegitura berdeari eta landa-habitatari buruzko artikuluetan adierazitako baldintzatzaile gainjarriak kontuan hartuta.

HHPari buruzko jarraibideak LPParen antolamendu-arauen 56. artikuluan jasotzen dira. Hiri-habitataren antolamendu orokorreko 10. planoan ageri da haren mugaketa, bai eta antolamendu-plano gehienetan ere

ANTOLAMENDU-ARAUAK

BOSGARREN TITULUA. HIRI-HABITATA

1. KAPITULUA XEDAPEN OROKORRAK

56. artikulua Hiri Hazkundeko Perimetroa


1. EAEko LAGen 11. artikuluen arabera, LPPk hiri-hazkundeko perimetro bat ezartzen du BMEFean..
2. Hiri-hazkundeko perimetrotzat (HHP) hartzen da LPPren indarraldirako aurreikusita dagoen hiri orbanaren mugaketa, ingurune naturalaren okupazioa mugatzen baitu, hura babestu eta zaintzeko.
3. LPPk eremu funtzionalerako HHP mugatzen du, kontuan hartuta egungo hiri-orbanaren morfologia eta hazteko aukerak, bai eta inguruko lurren ezaugarri fisikoak eta ekologikoak ere.
4. LAGetako Ingurune Fisikoaren Gidalerroan xedatutakoaren arabera, hirigintza-ereldaketa debekatuta duten lursailak UHHPtik kanpo geratzen dira.
5. HHPtik kanpoko hiri-inguruko ingurunean ez da aurreikusten hirigintza-okupazioaren beharrik LPPren barruan.
6. Bilbo metropolitarrako HHPren definizioan, Getxon eta Derion bi eremu zehatz desklasifikatzea gomendatzen da.
7. Hirigintza-plangintzak, HHPren barruan, hirigintza-proposamen berriak bideratu beharko ditu, eta garapen berriak lehendik dagoen hiri-bilbean integratu, erabilera-intentsitate txikiko eremuak dentsifikatuz eta hutsik dauden edo erabilera berriak har ditzaketen espazioak berrituz.
8. HHPren barruan lurzoru berriak okupatu behar badira, horien beharra eta egokitasun-baldintzak justifikatu beharko dira:
 - urak har ezin ditzakeen lursailak,
 - hiri-bilbearekin bat ez datozenak,
 - % 15etik beherako batez besteko maldak dituztenak,
 - baliabide naturalengatik edo nekazaritzakoengatik baliotsuak ez izatea, ingurune fisikoari, azpiegitura berdeari eta landa-habitatari buruzko artikuluetan adierazitako baldintzatzaile gainjarriak kontuan hartuta.



Tlfno: 94 453 5172
Fax: 94 471 03 24
C.I.F. P4809800H

Hirigintza/Urbanismo
Goronda Gane bidea, 1
48150 SONDIKA

www.sondika.org



10 hiri-habitataren planoa antolamendu orokorra

- EAEko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen (LAGen) aplikatzeko araudiak honako hau adierazten du gai honetaz:

11. artikulua. – Hiri-hazkundearen perimetroaren arloko gidalerroak.

1. – Lurralde plangintza partzialerako gidalerroak.

- a) Lurralde Plan Partzialetan hiri-hazkundeko perimetro bat proposatzea, udal-planek egokitu ahalko dutena eta udalerri guztien bizitegitarako eta jarduera ekonomikorako eskariak kontuan hartuko dituen.
- b) Hiri-hazkundearen perimetroa proposatzea eta horretarako, indarrean dauden Lurralde Plan Partzialetan definitutako bizitegi-garapen berriko jarduera ekonomikoetarako lehentasuneko eremuak egokitzea.
- c) Hiri Hazkundeko Perimetroa proposatzea egungo hiri orbanaren morfologia, inguruko lursailen ezaugarri fisikoak eta ekologikoak, eta hazkunde-itxaropenak aintzat hartuta. Horren harira:

1) Hiri Hazkundeko Perimetroa definitzeak ahalbidetuko du hiria lehendik dauden kokagune bakartuekin integratzeko. Lehendik dauden edo aurreikusita dauden garraio kolektiboko sistemekin bat datozen hazkunde prozesuak bideratzeko aukera ere emango du.



Tlfno: 94 453 5172
Fax: 94 471 03 24
C.I.F. P4809800H

Hirigintza/Urbanismo
Goronda Gane bidea, 1
48150 SONDIKA

www.sondika.org

2) *Eraldaketa Ardatzetan barne hartutako udalerrietan, Hiri Hazkundeko Perimetroaren mugapena aipaturiko ardatz horiek eratzeraz eta finkatzeraz bideratuko da, guneen arteko lurralde-hutsuneak babestuz eta zeharkako konexio ekologikoak indartzuz.*

3) *Hiri Hazkundeko Perimetroaren kanpoko hiri inguruko ingurunean ez dago bilduta eremuaren hirigintza-okupazioa beharrezkoa denik LPParen barruan. Lurzoru urbanizagarriko esparruak izanez gero, hirigintza-plangintzaren berrikuspenean erabakiko da esparruari landa-kalifikazioa ematea edo bere adskripzioa atxikiko duela justifikatzea hirigintza-hedapeneko zona berriei dagokienez.*

d) *Hiri Hazkundeko Perimetroan ezingo dira sartu Lurralde Antolamenduaren Gidalerro hauetan Ingurune Fisikoaren Gidalerroan xedatutakoaren arabera hirigintza-aldaketa debekatuta duten lursailak.*

e) *Hiri Hazkundeko Perimetroa hiri-ehunaren inguruan ezartzea.*

2.- Hirigintza-plangintzarako gidalerroak.

a) *Hiri Hazkundeko Perimetroaren barruan, hirigintza-ekimen berrien xedea izatea garapen berriak aldezturik dagoen hiri-bilbearen txertatzea, hiri-bilbe hori osatuta, lurzoruaren erabilerraz dagokionez intentsitate txikiak diren eremuak dentsifikatuta, eta okupaziorik ez duten edo erabilera berriak izan ditzaketen espazioak berrituta.*

b) *Garraio sistemetara heltzeko puntuen inguruan kokatutako dentsifikazioko, berrikuntzako edo hazkundeko jardueren lehentasuna ematea, betiere metroaren, aldiriko trenen eta hiriarteko tranbien geltokietatik oinez joateko moduko guneak izanik eskaera-maila handia duten zuzkidura eta ekipamenduak kokatzeko lehentasunezko eremu.*

c) *Hiri hazkundearen perimetroaren arabera aztertzea balio handiko nekazaritza eta abeltzaintzarako lurzoru urbanizaezin gisa sailka daitezkeen hiriko etxebizitza dinamiken edo jardura ekonomikoen poderioz zaharkituta geratu diren lurzoru urbanizagarriak.*

...

- Era berean, Hasiera batean Onestutako Bilbo Metropolitarrako Alde Funtzionalaren LPParen berrikuspenearen dokumentuaren Testuek honakoak adierazten dituzte azpimarratutako gaiaz:

PLANGINTZAK BATERAGARRI EGITEA

MEMORIA

13.PLANGINTZAK BATERAGARRI EGITEA

13.1. SARRERA

Lurralde-antolamenduko tresnak lurzoruaren araubideari buruzko legerian aurreikusitako plangintza orokor eta bereziko figuren bidez garatuko direla jasotzen du Lurralde Antolamenduari buruzko Legeak, eta horietan jasotako zehaztapenetara egokitu beharko direla.

Bestalde, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeak, 63. eta 92. artikuluetan, egiturazko antolamendu-planen artean plangintza orokorra bateragarri egiteko planaren figura jasotzen du, zenbait udal-mugarren mugakide diren eremuetako hiri-garapenearen ezaugarriak eta beharrak direla-eta beharrezkoa denean eragindako plan orokorren egiturazko antolamendua koordinatzea, eta hori egingo duen lurralde-antolamenduko tresnarik ezean, eragindako udalek bateragarri egitea erabaki ahal izango dute. Era berean, bateragarritze-planen gutxienezko edukia eta izapidetzeko eta onartzeko prozedura ezartzen ditu.

Lurralde Antolamenduaren Gidalerroek bateragarritasuna tresna edo tresna-multzo bati gisa aurkezten dute, lurralde-plangintzak planteatutako udalaz gairik lurralde-erreak gauzatzea ahalbidetuko duen harmonizazio zehatza lortzeko, administrazio-mugak kontuan hartu gabe.

LZParen proposamenek aukera ematen dute eremu funtzionalaren barruan planteamendu integratua behar duten udalerriak identifikatzeko, udalerriak osatzen duen mugaketa administratibotik harago, hala nola Derio, Loiu eta Sondika, zeinek bere hiriguneak ia elkartzuta baitituzte.

Errealitate horri gehitu behar zaio berezko garrantzia duten lurralde-azpierrean integratutako udalerri batzuek duten bokazioa, hala nola Txoriherri, Meatzaldea, horiek erlazioan, lotu eta izaera ematen dien elementu komun bat dutenak, hala nola Bilboko itsasadarra edo horiek egikaritzeko igarotzen diren udalerrien bidezko koordinazioa behar duten azpiegiturak edo ekipamenduak, hala nola ibai-parkeak edo metropoli-parkeak.

Egoera hori dela eta, beharrezkoa da esku hartzen duen udal-plangintza modu koordinatuan idatzi eta garatuko dela bermatzeko mekanismoak ezartzea.

13.2. HELBURUAK ETA IRIZPIDE OROKORRAK



Tlfno: 94 453 5172
Fax: 94 471 03 24
C.I.F. P4809800H

Hirigintza/Urbanismo
Goronda Gane bidea, 1
48150 SONDIKA

www.sondika.org

LAGak eta LPParen helburu estrategikoak kontuan hartuta, plangintzak bateragarri egiteari dagokionez: 6. zk. "Udalaz gaindiko estrategia bat ezartzea lurralde osoan, hainbat arlotan ekintza eta sinergia multzo bat aurreikusiz, beharrezkoenak jotzen diren arloak aipatuz" eta 8. zk. "LZP berrikusteak proposatzen dituen jardueren lehentasunak eta koordinazioa zehaztea, bai eta horiek gauzatzear arduratuko diren eragileak definitzea ere", helburuak eta jarduerak irizpideak ezartzen dira:

- Lurralde-estrategiaren koherentzia indartzea, bai udal-mailan, bai eremu funtzionalean. Horretarako, eredu kongruente bat ezartzen da, proposatutako jarduerak koordinatzen eta lehenesten dira, eta horiek gauzatzear arduratuko diren eragileak definitzen dira.
- Herritarrek eremu mugakideetan aukera-eremu gisa duten pertzepzio positiboa sustatzea. Horrela, udal-jarduerak elkarren artean lehiatzea edo ahaleginak bikoiztea saihesten da, bereziki, metropoli-parkeen kasuan bezala, onura dakarten proposamenetan, ez bakarrik eremu funtzionalarentzat, baita eragindako udalerrientzat ere.
- Eremu funtzionalei eta inguruko udalerriei batera eragiten dieten arazoak konpontzeko edo aukerak gauzatzeko lurralde-eskala egokia identifikatzea. Horretarako, bateragarri egiteko hainbat eremu espazial definitu dira, hala nola udalaz gaindiko eremu estrategikoak.
- Eremu funtzionalak lurralde-plangintza eta udal-plangintza koordinatzea, udalerririk mugakideen plan orokorretako zehaztapenak modu integratuan eta dagozkien errealitate funtzional eta morfologikoarekin bat etorritik sor daitezkeen. Adibidez, arreta jartzen da ingurune fisikoaren kategorizazioa eta gainjarritako baldintzatzaileak bateragarri egin behar diren beste LPP batzuekiko harreman-eremuetan, edo udalerririk bati baino gehiagori edo eremu funtzional bati baino gehiagori eragiten dieten egituraketa-azpiegiturretan, eta koordinatu behar diren agente inplikatuak identifikatuz.
- Bateragarritasun-sistema alternatibo berriak txertatzea, udalaz gaindiko kudeaketa-eremuak mugatu ahal izateko, eta hirigintza-antolamendurako zehaztapenak ezartzea, udalaz gaindiko interesa duten egiturazko jarduketak ahalbidetzeko eta koordinatzeko edo harmonizatzeko, eredu jakin bat ezartzeko eta lurraldearen orekan eragina duten erabilerak finkatzeko.

Horretarako, udalerririk arteko bateragarritasun-politikak eta -planak garatzen dira, arloko udalerririk artean kultura-, gizarte-, ekonomia- eta bizitegi-jardueraren eskaintza osagarria bultzatzeko.

13.3. PLANGINTZAK BATERAGARRI EGINGO DIREN EREMUAK SAILKATZEA ETA DEFINITZEA
LPPk plangintzak bateragarri egiteko eremuen sailkapen hau ezartzen du, horiek eragiten dituzten alderdien arabera:

1. Udalaz gaindiko eremu estrategikoak.
2. Beste LPP batzuekiko harreman-eremuak.
3. Udalaz gaindiko azpiegitura-elementu linealak.
4. Lurzoru urbanizaezinean udalaz gaindiko parkeak garatzeko koordinaziorako lurralde-eremuak.
5. Aldameneko plangintzen bateragarritze-eremuak.

Hona hemen horietako bakoitzaren deskribapena eta helburuak:

...

4. Lurzoru urbanizaezinean udalaz gaindiko parkeak garatzeko koordinaziorako lurralde-eremuak.

Talde honetan, LPPak proposatutako ibai-parkeei eta metropoli-parkeei dagozkien eremuak identifikatzen dira, batez ere lurzoru urbanizaezinean daudenak. Horien antolamendua hainbat udalerririk artean koordinatu behar da, proposatzen den ekipamenduari koherentzia eta kohesioa emateko.

Hauek dira:

...

b) Planifikazio bateragarriaren xede diren metropoli-parkeak:

...

3. Artxanda, Sondika eta Bilbo udalerririk eragiten diena.

...

Eremu horien mugaketa azpiegitura berdearen baldintzatzaile gainjarriak izeneko 03.03.02 planoan islatzen da. Metropolialdeko azpiegitura berdea Errelebozko zerbitzu ekosistemikoko kulturalak dituzten elementuak, bai eta 19. planoan bertan ere, plangintza bateragarri egitea. Mugaketak orientagarriak dira, eta horien definizio zehatza eragindako udalerririk artean koordinatu behar da, parke horien antolamendua garatzeko beharrezkoak diren plan berezien bidez.

Eremu horien deskribapena eta antolamendu-jarraitbideak Memoriaren IV. eranskin gisa erantsi dira.

5. Plangintzak bateragarri egiteko eremuak.

Talde honetan hainbat udal-mugarterik eremu mugakideei dagozkien eremuak identifikatzen dira, hiri-garapenerik ezaugarriak eta beharrak direla-eta beharrezkoa denean eragindako lurzoruen egiturazko



Tlfno: 94 453 5172
Fax: 94 471 03 24
C.I.F. P4809800H

Hirigintza/Urbanismo
Goronda Gane bidea, 1
48150 SONDIKA

www.sondika.org

antolamendua koordinatzea. Bereziki, hiri-lurzoruen eta lurzoru urbanizagarrien eremuak dira, indarrean dauden udal plangintzako tresnen arabera, tresna horiek jada behar bezala koordinatuta ez dauden kasuetan, bai eta LPPk hiri-berroneratzeko edo -berrikuntzako proposamenak ezartzen dituen eremu sailkatuetan ere. Honako hauek identifikatu dira:

..
b) Loiu eta Sondika.

...

g) Bilbo eta Sondika (Artxanda)

Bateragarritze-eremu horiek garatzeko, azalera zabalago baten inguruko azterketa bat egin behar da, "Bateragarritasunerako azterketa-eremua" izenekoa.

Bateragarritasun-eremuak eta horien azterketa-eremuak grafikoki adierazita daude 20. planoan (Plangintzak bateragarri egitea). LPP honetan ezarritako bateragarritasun-eremuen deskribapena eta bateragarritasun-jarraibideak, plangintza orokorreko dokumentuetan aplikatu beharrekoak, VIII. eranskin gisa erantsi zaizkie antolamendu-arauei.

ANTOLAMENDU-ARAUAK

HAMAIKAGARREN TITULUA. PLANGINTZAK BATERAGARRI EGITEA

115. artikulua Kontzeptua eta justifikazioa

LPP honetan jasotako plangintzen bateragarritasuna honela definitzen da Lurralde Antolamenduaren Jarraibideetan: "Lurralde-plangintzak planteatutako udalaz gaindiko lurralde-erronkak gauzatzea ahalbidetuko duen harmonizazio zehatza lortzeko tresna edo tresna multzo erabilgarria, administrazio mugak kontuan hartu gabe".

LPP honetan zehaztutako plangintzak bateragarri egiteko, LAGen 6.6 kapituluaren eta 14. artikuluan eta Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 63. eta 92. artikuluetan xedatutakoa bete behar da.

116. artikulua Plangintzak bateragarri egiteko sistematika

LPPk, bateragarri egiteko lehen jarraibide gisa, plangintza orokorreko dokumentuetan edo azpiegiturak garatzeko proiektu sektorialetan aplikatu beharreko zehaztapenen multzoa ezartzen du.

Plangintzak bateragarri egiteko, inplikaturako udalerriek eta eragindako administrazio sektorialek udalaz gaindiko eragin-gaiei buruzko erabakietan parte hartzea aurreikusten da, bai sustapenean, bai erabakitze-prozesuan.

Hainbat udal-mugartetako eremu mugakideetako hiri-garapenaren ezaugarriak direla-eta beharrezkoa denean eragindako plan orokorren egiturazko antolamendua koordinatzea, eta ekimenik ez badago edo antolamendu-irizpideekiko desadostasunik badago, eragindako udalerrietako edozeinek eskatu ahal izango dio BFaren (edo, hala badagokio, Eusko Jaurlaritzaren) organo eskudunari horri buruzko txosten loteslea. Txosten horrek berrikuspen- edo aldaketa-prozedura hastera ekarriko du, haren zehaztapenak ukitutako plan orokorretan behar bezala txertatu eta integratzeko.

117. artikulua Plangintzak bateragarri egingo diren eremuen sailkapena

LPPk plangintzak bateragarri egiteko eremuen sailkapen hau ezartzen du, horiek eragiten dituzten alderdien arabera:

1. Udalaz gaindiko eremu estrategikoak.

...

4. Lurzoru urbanizaezinean udalaz gaindiko parkeak garatzeko koordinaziorako lurralde-eremuak.

5. Aldameneko plangintzen bateragarritze-eremuak.

Horren definizioa eta helburuak Memoriaren 13. Kapituluaren arabera dira.

121. artikulua Lurzoru urbanizaezinean udalaz gaindiko parkeak garatzeko koordinaziorako lurralde-eremuak

Elementu hauek identifikatzen dira:

...

b) Planifikazio bateragarriaren xede diren metropoli-parkeak:

...

3) Artxanda, Sondika eta Bilbo udalerriei eragiten diena.

....

Eremu horien mugaketa LPP honen dokumentazio grafikoan jasota dago, zehazki 20. planoan Plangintzak bateragarri egitea. Mugaketa horren izaerari buruzko araudia Antolamendu-Arau hauen 11. Tituluan jasota dago.

Espazio horien antolamenduaren bateragarritasuna bermatzeko, inplikaturako udalerriek beren antolamendu zehatua koordinatu beharko dute Plan Berezi baten bidez (dagoeneko idatzita ez badute), Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 72. artikuluekin bat etorriz.



Tlfno: 94 453 5172
Fax: 94 471 03 24
C.I.F. P4809800H

Hirigintza/Urbanismo
Goronda Gane bidea, 1
48150 SONDIKA

www.sondika.org

Eremu horien deskribapena eta LPP honek ezarritako lehen bateragarritze-gidalerroak, plangintza orokorreko dokumentuetan aplikatu beharrekoak, Memoriaren IV. Eranskin gisa jaso dira.

122. artikulua Plangintzak bateragarri egiteko eremuak

Honako hauek identifikatu dira:

...
b) Loiu eta Sondika.

...
Bateragarritze-eremu horiek garatzeko, azalera zabalago baten inguruko azterketa bat egin behar da, Bateragarritasunerako azterketa-eremua izeneko.

Bateragarritze-eremuak eta horien azterketa-eremuak LPP honen dokumentazio grafikoan jasotzen dira grafikoki, zehazki 19. planoan Plangintzak bateragarri egitea..

Espazio horien antolamenduaren bateragarritasuna bermatzeko, inplikaturako udalerriek beren egiturazko antolamendua koordinatu beharko dute, mekanismo hauetako baten bidez:

a) Inplikaturako udalerrien Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren Aurrerapena batera idaztea.

b) Egiturazko antolamendua Bateragarri egiteko Plan bat idaztea, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 63. eta 92. artikuluetan adierazitakoarekin bat etorritz.

LPP honetan ezarritako bateragarritasun-eremuen deskribapena eta bateragarritasun-jarraibideak, plangintza orokorreko dokumentuetan aplikatu beharrekoak, VIII. Eranskin gisa erantsi zaizkie Antolamendu-Arauei.

VIII. ERANSKINA. ANTOLAMENDU-ARAUAK

PLANGINTZAK BATERAGARRI EGITEKO EREMUAK


1. UDALERRI MUGAKIDEEN BATERAGARRITASUN-EREMUEN ZERRENDA

...
Loiu eta Sondika

...
Bilbo-Sondika (Artxanda aldea)

2. PLANGINTZAK BATERAGARRI EGITEKO EREMUETARAKO OINARRIZKO ANTOLAMENDU-IRIZPIDEAK

7. Bilbo-Sondika plangintza bateragarri egiteko eremua Artxandan.



- Bateragarri egiteko eremua:



Tlfno: 94 453 5172
Fax: 94 471 03 24
C.I.F. P4809800H

Hirigintza/Urbanismo
Goronda Gane bidea, 1
48150 SONDIKA

www.sondika.org

Artxandako AR-01 "Artxandako eremu zentrala eta bere ingurunea" eremu zentralaren eremuari dagokio, abian den Bilboko HAPOren Berrikuspenean definitutakoa. Horrez gain, bat dator behin betiko onetsitako Sondikako Plan Orokorren ACP-1 eremuarekin.

- Bateragarri egiteko azterketa-eremua:

Bateragarri egiteko azterketa-eremuak Artxandako metropoli-parkearen Plan Bereziaren mugatutako azalera osoa hartzen du.

- Antolamendu-irizpideak:

- Erabilera globalak: metropoli-parkea eta aisialdirako ekipamenduak


- Metropoli-parkearen Plan Bereziaren gutxi gorabeherako azalera: 274 ha

- Bateragarri egiteko eremuaren gutxi gorabeherako azalera: 43,16 ha

- LPPren arabera, eska daiteke eta loteslea izango da eremu honetarako bateragarri egiteko plan baten aldi bereko idazketa koordinatua, baita Artxandako metropoli-parkearen plan bereziarena ere, bi tresnen arteko beharrezko koherentzia lortze aldera.


- Aurrekariak:

Bilbo Metropolitarrako indarreko LPP 2006ko irailaren 26an onetsi zen behin betiko eta Artxandako Metropoli-parkea mugatu eta arautu egiten du, horrelako parke bat antolatzeke helburu orokorrek, non behar bezala integratu egingo diren inguru horretan dauden berdeguneak, ekipamenduak eta aisialdirako zuzkidurak (begiratokiak, pasealekuak, merenderoak, jatetxeak, kirol-ekipamenduak). Bilboko udal-mugartean, grafiko honetan adierazitakoa da bere mugaketa:



Eremu honek biztanleek gozatzeko garrantzia handiko aisialdirako espazio handi baten berezko ezaugarri espezifikoak ditu, eragin berezia izango duena Bilboko herritarrengan.

Udalaz gaindiko plan berezi bat egitea aurreikusten da. Plan horrek, besteak beste, ingurumenaren aldetik sentikorra den eremu baten balioa handitzea du helburu, non biztanleen aisialdi-jarduerara eta hura kontrolatzeko ekintzak bateragarri egin behar diren.



plangintzak
planoa 20 bateragarri egitea

- EAEko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen (LAGen) aplikatzeko araudiak honako hau adierazten du Plangintzak Bateragarri egiteari buruz:
 14. artikulua. – Plangintzak bateragarri egitearen arloko gidalerroak.
 1.– Lurralde Plan Partzialetan honako hauek kontuan hartzea:
 a) Udalaz gaindiko izaera estrategikoko eremuen definizioa, zeinetan Bateragarritzeko Plan bat idatziko den bizitegi edo -industria lurzoruko politikak garatzeko, edo bestela Plan Berezi bat ekipamenduak, azpiegiturak edo lurzoru urbanizaezina koordinatu behar den kasuetan.
 b) Beste Lurralde Plan Partzialekin erlazionatzeko esparruen identifikazioa.
 c) Udalaz gaindiko azpiegitura linealak.
 d) Inplikaturako udalerrien plangintzan hartu beharreko irizpide espezifikoak udalerri horiek beren hirigintza-estrategien integrazio eraginkorra lor dezaten.
 2.– Bateragarritasunetako tresna alternatibo gisa bateragarritze proiektu baten idazkuntza ezartzea, eraginpeko udalerri bakoitzaren plangintza orokorrean barne hartu beharreko zehaztapen espezifikoak bilduko dituen, lortu nahi den bateragarritzea bermatzeko. Inplikaturako udalerrien Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren Aurrerapenaren idazkuntza bateratua.



Tlfno: 94 453 5172
Fax: 94 471 03 24
C.I.F. P4809800H

Hirigintza/Urbanismo
Goronda Gane bidea, 1
48150 SONDIKA

www.sondika.org

3.– Plangintzak bateragarri egiteari dagokienez, lurralde-eskalako proposamenak Lurralde Plan Partzialean osatuko dira, esku hartzen duen udalaz gaindiko administrazioak proposamen horiek egikaritzeko eta finantzatzeko neurri egokien bidez. Alde horretan, administrazioak koordinatu egingo dira proposatutako agendak bideratzeko eta finantzatzeko.

4.– Eraginpeko udalerri bakoitzean bateragarri egitekoak diren elementuak definitzea.

a) Erreferentzia-esparrua zehaztea:

1) Bateragarri egitea justifikatzen duten arrazoiak bete beharreko udalaz gaindiko eginkizunen oinarriaren gain.

2) Bateragarri egiteko estrategiarekin lortu nahi diren helburu global eta espezifikoak.

3) Hiri-erabilera eta -jardueren proposamena eraginpean hartzen duten oinarritzko magnitudeak, baita garatu beharreko hiri-programak zehatz-mehatz ezartzea ere.

b) Plangintzak bateragarri egiteko aplikatu behar diren edukia eta irizpideak ezarriko dituzte Lurralde Plan Partzialek beren jardun-esparruan. Honako elementu hauek kontuan hartzea iradokitzen da:

1) Bateragarri egiteko eremua mugatzea.

2) Irizpideak ezartzea lurzoru-erabilerari, eraikigarritasunari eta hiri-diseinuari dagokienez Hiri Lurzoru edo Lurzoru Urbanizagarria antolatzeke, eta, kasuan kasu, lurzoru Urbanizaezina antolatzeke.

3) Hornidurak xehetasunez zehaztea eta kokatzea, eta bereziki, espazio libre eta berdeguneen sistema, edo azpiegiturazko eskema.

4) Udalerrien plangintza orokorraren idazkuntzarako erreferentziak.

5.– Plangintzak bateragarri egiteko espazio gisa azaltzea Bilbaoko itsasadarraren eta Pasaiako Badiaren inguruko eremuak. Dagokion Lurralde Plan Partzialak definituko du bateragarri egiteko eremua.

- Era berean, Hasiera batean Onestutako Bilbo Metropolitarrako Alde Funtzionalaren LPParen berrikuspenaren dokumentuaren Testuek honakoak adierazten dituzte azpimarratutako gaiak:

METROPOLI-PARKEAK

MEMORIAREN IV. ERANSKINA

METROPOLI-PARKEAK ETA IBAI-PARKEAK

Antolamendurako helburuak, funtzioak eta irizpideak

Metropoli-parkeak eta ibai-parkeak antolatzeke idazten diren Plan Bereziek, haietako bakoitzean berariaz definitutakoek gain, honako helburu eta funtzio egituratzaile hauek ere antolatu beharko dituzte, lehentasunez:

Helburu orokorrak:

- o Eremu osorako zonifikazio bat definitzea, eremu bakoitzaren ezaugarrien arabera, eta eremu bakoitzerako babes-maila eta erabilera egokiak, onargarriak eta debekatuak ezartzea. LPP honetan babes berezikotzat eta ingurumen-hobetzekuntzakotzat jotzen diren eremuen antolamendua errespetatu egin beharko da plan berezian ezarritako jarduerak eta jarraibideak proposatzerakoan.

- o Bertako landaredi potentziala berreskuratu dadin sustatzea, baliabideen ustiapenarekin bateragarri eginez, eta bertako zuhaitzak babestea.

- o Parkeen eta inguruan dauden naturaguneen arteko lotura ekologikoa hobetzea.

- o Oinezkoen eta bizikleten mugikortasuna bultzatzea azpiegitura bigunen bidez, oinezkoentzako sarbidea eta hiriko azpiegitura berdearen jarraitutasuna bultzatuz.

- o Parkeetarako sarbideak antolatzea eta arautzea, garraio publikoko geltokien eta geratokien hargune-erradioaren barruan daudenak indartuz. Era berean, aparkalekuak antolatzea eta arautzea, horien erabilerak hiri-eremu finkatuekiko interakziorik ez duenean.

- o Gaur egungo paisaia babestea eta herritarrek paisaia horretaz gozatzea ahalbidetzen duten jarduerak mantentzea eta sustatzea.

- o Ingurumena hobetzeko ekintzak abian jartzea: ingurumen-hobekuntza, eraikinak zaharberritzea, ibilbideak hobetzea eta abar.

- o Aisialdiko jarduerak ordenatzea: baimendutako jarduerak eta babes- eta kontrol-neurriak definitzea, bai eta beharrezko ekipamenduak antolatzea ere.

- o Eragin negatiboa izan dezaketen eta eremuaren ezaugarri naturaletan galerak eragin ditzaketen alderdiak birbideratzea, eta ingurumen-inpaktu negatiboak ezabatzeke plan espezifiko bat abian jartzea.

Funtzio orokorrak:

- o Natura: bertako zuhaitzak eta landaredia eta batasunaren intereseko habitatak babestea.



Tlfno: 94 453 5172
Fax: 94 471 03 24
C.I.F. P4809800H

Hirigintza/Urbanismo
Goronda Gane bidea, 1
48150 SONDIKA

www.sondika.org

o Ikerketa zientifikoa.

o Paisaia: dauden paisaia-balioak babestea eta eremuko garraio-azpiegituren paisaia-integrazioa hobetzea.

o Aisia: baimendutako eta sustatutako aisialdiko eta dibertimenduzko jarduerak eta dauden ekipamenduak erregulatzea. Aisialdiko jarduera formalak zein informalak egiteko espazio irekiak ematea.

o Hezkuntza: ingurumen-hezkuntzako eta sentsibilizazioko jarduerak egitea, eremuko natura balioak eta arazoak ezagutzeko, bai eta ingurunea hobetzeko jarduerak egiteko aukera ere.

Behin betiko mugatzeko irizpideak:

Parke bakoitzerako proposatutako mugaketa orientagarria da, eta udalaz gaindiko azpiegitura berdearen eta lehendik dagoen eta potentziala den hiri-azpiegitura berdearen arteko lotura indartzea du helburu.

Plan Berezi bakoitzak ezarriko du behin betiko mugaketa, eremuaren azterketa xehatua oinarrituta eta jarraian zehazten diren irizpideei jarraituz:

o Proposatutako jarduerak garatzeko beharrezkoak diren arloak txertatzea.

o Basoak eta landaretza autoktonoko eremuak sartzea, herritarren babesa eta gozamina sustatzeko.

o Korridore ekologikoekin eta hiriko azpiegitura berdearekin lotura egokienak bilatzea, bereziki ibai-ibilguei lotutako eremuak sartuz. Hala badagokio, korridore ekologikoen mugaketa handitzea.

o Interesgarriak izan daitezkeen ondare-elementuak txertatzea, haien balioa nabarmentzeko eta elementu horiek ezagutu eta gozatu ahal izateko.

o Hiri-inguruneetan, mugaketaren barruan erabilera publikoko espazioak edo parkea diseinatzeko ezinbestekoak diren eta publiko bihurtu behar diren espazio pribatuak soilik sartzea.

Jarraian, metropoli-parke eta ibai-parke bakoitzerako honako hau zehazten da:

o Eremuaren kokapena, mugaketa orientagarria eta deskribapena

o Antolamendurako irizpide eta funtzio egituratzaile espezifikoak

o Antolamenduko helburu espezifikoak

1. Artxandako Metropoli-Parkea

Kokapena, mugaketa orientagarria eta deskribapena:

Artxandako metropoli-parkea, Cabras menditik eta Banderas menditik Santo Domingo gainera doan katearen tontorrean dago. Proposatutako mugaketa orientagarriak muga egiten du iparraldean eta ekialdean Artxanda - Ganguren K.E.04 gailur-lerroarekin eta hegoaldean eta mendebaldean Bilboko hiri hazkunderen perimetroarekin. Metropoli-parkea Bilbo eta Sondika udalerrien barruan dago.

Kokalekua interes handiko guinea da metropoli-eremuaren barruan, paisaia-interesa baitu, Bilboko hirigunearen, Txorierriren eta itsasertzaren begiratoki pribilegiatua delako. Halaber, nabarmentzekoak dira haren balio naturalak eta jolas-ingurunea, aisialdirako eremu gisa erabili izan baita tradizionalki, eta ekipamendu, hornidura eta zerbitzu ugari dituen erdigunea baitu. Artxandako funikularraren bidez, Bilbotik erraz hel daitezke oinezkoak eta txirrindulariak. Ibilbide Handiko (GR 228: Bilboko Eraztun Berdea) natura-ibilbide bat ere badago, parkerako proposatutako mugaketa luzetara zeharkatzen duena.

Gaur egun, jarduketa garrantzitsuak egiten ari dira: zuhaitz-eremua, lorategiak eta begiratokia berritzea funikularra iristen den inguruan, eta BI-3741 errepidea eraldatzea, ibilgailuen zirkulazioa eta oinezkoen eta bizikleten zirkulazioa segurtasun-baldintzetan bateragarriak izan daitezkeen.

Metropoli-parke horren eremurako, Bizkaiko Foru Aldundiak Plan Berezi bat idazteko agindu zuen, eremu hori modu integralean antolatzeko. Dokumentua 1998an entregatu zen, eta tramitazioak ez du aurrera egin.

Antolamendurako irizpide eta funtzio egituratzaileak:

Kokalekua eta gaur egun erdialdean ezarrita dauden erabilerak direla eta, eremu horrek garrantzi handia du herritarren, Bilbotarren bereziki, aisialdirako. Haren garapenaren bidez, berdeguneak, ekipamenduak eta aisialdirako hornidurak (begiratokiak, pasealekuak, merenderoak, jatetxeak, kirol ekipamenduak eta abar) eta aisialdirako ez diren ekipamenduak eta hornidurak (osasunerako, hezkuntzarako eta abar) modu ordenatuan integratuko dituen metropoli-parkea lortu nahi da.

Erdialdean egiten diren egokitzapen-jarduketak alde batera utzi gabe, parkeko hainbat puntu estrategikotan Nerbioi-Ibaizabal eta Txorierra haranak behatzeko eta atsedean hartzeko guinea jarri beharko dira, ikuspegi panoramikoez gozatu ahal izateko. Halaber, paisaiatz eta naturaz gozatzeko aukera emango duen ibilbide-sare bat diseinatuko da.

Idatziko den plan bereziaren helburua ingurumen-, paisaia- eta ekologia-alderdietan sentikorra den eremu baten balioa handitzea izango da, erabilera eta jardueren erregulazio egoki baten bidez aisialdiko jarduerekin bateragarri eginez.

Egoera horren aurrean, oro har definitutako funtzioez gain, Plan Bereziak honako funtzio espezifiko hauek antolatu beharko ditu:



Tlfno: 94 453 5172
Fax: 94 471 03 24
C.I.F. P4809800H

Hirigintza/Urbanismo
Goronda Gane bidea, 1
48150 SONDIKA

www.sondika.org

o Paisaia: begiratokiak leku estrategikoetan kokatzea eta Artxandako hegaletan paisaiaren aldetik interes berezia duen eremua babestea.

Aisia: baimendutako eta sustatutako aisialdiko jarduerak antolatzea, bai eta dauden beste jarduera mota batzuk ere. Aisialdiko eta paisaiako ibilbideak antolatzea.


o Nekazaritza eta Basozaintza: proposamen berritzaileak praktikan jartzeko aukera, bai ustiapen-moduetan, bai espezie motetan.

Antolamendurako helburuak:

Parke guztietarako oro har definitutakoez gain, idatziko den plan bereziak honako helburu espezifiko hauek izango ditu kontuan eremua antolatzeko:

1. Bilbo eta Sondika udalerrien inguruan dauden eremu naturalen arteko lotura ekologikoa hobetzea, eta metropoli-parkearen eta Artxanda - Ganguren K.E.04 gailur-lerroaren korridore ekologikoaren arteko lotura ekologikoa bermatzea. Zehazki, G.E.11 gatazka-eremuan konektibitate ekologikoa konpontzeko aukerari ekitea, korridore ekologikoarekin berarekin partekatuta.
2. Bilboko hiri-hazkundearen perimetroarekiko muga integratzea eta antolatzea.
3. Txorierriko bizikleta-lotura hobetzea, ahal den neurrian, Bilbo-Lezama trenbide zaharraren trazatuaren arrastoa aprobetxatuz.
4. Artxandako hegaletako paisaia-interes bereziko eremua antolatzea eta babestea.
5. Aisialdiko jarduerak ordenatzea: seinaleztatutako bidezidorren sarea sortzea eta bizikleta bidezidorrak mugatzea.
6. Dauden inpaktuen ezabaketari ekitea: eremuaren ipar-ekialdeko hegalean dagoen zabortegiaren ingurumen-hobekuntza, eraikin abandonatuak, hondakinak, instalazio elektriko zaharkituak, argi hodiak eta abar.

- 2021eko irailaren 6an indarrean sartu zen 557/2016 Foru Aginduaren bidez partzialki behin betiko onartutako Sondikako Hiri Antolamendurako Plan Orokorra (HAPOa). Dokumentu horrek jasotako zehaztapenen artean, Sondika eta Bilboren arteko Plangintza Bateratzeko eremu bat zehazten da honelako deskribapenarekin;



ORDENAZIO XEHAKATUA

LUR URBANIZAEZINAREN
KATEGORIAK

OE.2



Tlfno: 94 453 5172
Fax: 94 471 03 24
C.I.F. P4809800H

Hirigintza/Urbanismo
Goronda Gane bidea, 1
48150 SONDIKA

www.sondika.org

MEMORIA 557/2016 Foru Aginduak behin betikoz onesten duen zatiaren testuategina

I.2. AURREKARIAK

Jarraian, agirian aldaketa esanguratsuagoak egitea ekarri duten eduki-alderdi hauek zerrendatzen eta deskribatzen ditugu:

Lurzoru urbanizaezinari dagokionez (Foru Aginduaren 1.3 atala):

...

- Plangintzak bateragarri egiteko beste eremu bat (ACP-1) mugarriztatu da Artxandako Aisiarako Eremuaren kategoria zegoen eremuan, Bilbo udalerriarekiko mugan, lursail horien egiturazko antolamendua bi udalerrien plangintza orokorrak koordinatuko dituen etorkizuneko Bateragarritasun-plan baten esku uzteko helburuz.

...

HIRIGINTZA-ARAUDI OROKORRA 557/2016 Foru Aginduak behin betikoz onesten duen zatiaren testuategina.

II. KAPITULUA LURRALDEAREN HIRIGINTZA-ZATIKETA

1. SEKZIOA. LURZORUAREN SAILKAPENA

14.artikulua. Hirigintza-sailkapenak ezarritako lurraldearen zatiketa

...

Plan Orokorrak Bateragarritasun Planera (ACP 1) geroratutako eremua Plan Orokorrak ezarritako sailkapenetik kanpo gelditzen da Bateragarritasun Planak sailkapen hori ezartzen duen arte.

- BMAFLPPak proposatutako Bilbo-Sondika Plangintza Bategarria egiteko irizpideak honakoak dira;

- Bateragarri egiteko eremua:

Artxandako AR-01 "Artxandako eremu zentrala eta bere ingurunea" eremu zentralaren eremuari dagokio, abian den Bilboko HAPOn Berrikuspenean definitutakoa. Horrez gain, bat dator behin betiko onetsitako Sondikako Plan Okorrraren ACP-1 eremuarekin.

- Bateragarri egiteko azterketa-eremua:

Bateragarri egiteko azterketa-eremuak Artxandako metropoli-parkearen Plan Bereziaren mugatutako azalera osoa hartzen du.

- Antolamendu-irizpideak:

- Erabilera globalak: metropoli-parkea eta aisialdirako ekipamenduak

- Metropoli-parkearen Plan Bereziaren gutxi gorabeherako azalera: 274 ha

- Bateragarri egiteko eremuaren gutxi gorabeherako azalera: 43,16 ha

- LPPren arabera, eska daiteke eta loteslea izango da eremu honetarako bateragarri egiteko plan baten aldi bereko idazketa koordinatua, baita Artxandako metropoli-parkearen plan bereziarena ere, bi tresnen arteko beharrezko koherentzia lortze aldera.

- Aurrekariak:

Bilbo Metropolitarrako indarreko LPP 2006ko irailaren 26an onetsi zen behin betiko eta Artxandako Metropoli-parkea mugatu eta arautu egiten du, horrelako parke bat antolatzeko helburu orokorrekarekin, non behar bezala integratu egingo diren inguru horretan dauden berdeguneak, ekipamenduak eta aisialdirako zuzkidurak (begiratokiak, pasealekuak, merenderoak, jatetxeak, kirol-ekipamenduak). Bilboko udal-mugartean, grafiko honetan adierazitakoa da bere mugaketa:

Eremu honek biztanleek gozatzeko garrantzia handiko aisialdirako espazio handi baten berezko ezaugarri espezifikoak ditu, eragin berezia izango duena Bilboko herritarrengan.

Udalaz gaindiko plan berezi bat egitea aurreikusten da. Plan horrek, besteak beste, ingurumenaren aldetik sentikorra den eremu baten balioa handitzea du helburu, non biztanleen aisialdi-jarduera eta hura kontrolatzeko ekintzak bateragarri egin behar diren.

- BMAFLPPak zehaztutako Artxandako Metropoli Parke honetako ezaugarriak honakoan dira: Kokapena, mugaketa orientagarria eta deskribapena:

Artxandako metropoli-parkea, Cabras menditik eta Banderas menditik Santo Domingo gainera doan katearen tontorrean dago. Proposatutako mugaketa orientagarriak muga egiten du iparraldean eta ekialdean Artxanda - Ganguren K.E.04 gailur-lerroarekin eta hegoaldean eta mendebaldean Bilboko hiri hazkundearen perimetroarekin. Metropoli-parkea Bilbo eta Sondika udalerrien barruan dago.

Kokalekua interes handiko gunea da metropoli-eremuaren barruan, paisaia-interesa baitu, Bilboko hirigunearen, Txorierriren eta itsasertzaren begiratoki pribilegiatua delako. Halaber, nabarmentzekoak dira haren balio naturalak eta jolas-ingurunea, aisialdirako eremu gisa erabili izan baita tradizionalki, eta ekipamendu, hornidura



Tlfno: 94 453 5172
Fax: 94 471 03 24
C.I.F. P4809800H

Hirigintza/Urbanismo
Goronda Gane bidea, 1
48150 SONDIKA

www.sondika.org

eta zerbitzu ugari dituen erdigunea baitu. Artxandako funikularraren bidez, Bilbotik erraz hel daitezke oinezkoak eta txirrindulariak. Ibilbide Handiko (GR 228: Bilboko Eratzun Berdea) natura-ibilbide bat ere badago, parkerako proposatutako mugaketa luzetara zeharkatzen duena.

Gaur egun, jarduketa garrantzitsuak egiten ari dira: zuhaitz-eremua, lorategiak eta begiratokia berritzea funikularra iritsien den inguruan, eta BI-3741 errepidea eraldatzea, ibilgailuen zirkulazioa eta oinezkoen eta bizikleten zirkulazioa segurtasun-baldintzetan bateragarriak izan daitezzen.

Metropoli-parke horren eremurako, Bizkaiko Foru Aldundiak Plan Berezi bat idazteko agindu zuen, eremu hori modu integralean antolatzeke. Dokumentua 1998an entregatu zen, eta tramitazioak ez du aurrera egin.

Antolamendurako irizpide eta funtzio egituratzaileak:

Kokalekua eta gaur egun erdialdean ezarrita dauden erabilerak direla eta, eremu horrek garrantzi handia du herritarren, Bilbotarren bereziki, aisialdirako. Haren garapenaren bidez, berdeguneak, ekipamenduak eta aisialdirako hornidurak (begiratokiak, pasealekuak, merenderoak, jatetxeak, kirol ekipamenduak eta abar) eta aisialdirako ez diren ekipamenduak eta hornidurak (osasunerako, hezkuntzarako eta abar) modu ordenatuan integratuko dituen metropoli-parkea lortu nahi da.

Erdialdean egiten diren egokitzapen-jarduketak alde batera utzi gabe, parkeko hainbat puntu estrategikotan Nerbioi-Ibaizabal eta Txorierrri haranak behatzeko eta atsedean hartzeko guneak jarri beharko dira, ikuspegi panoramikoez gozatu ahal izateko. Halaber, paisaiatzeko eta naturaz gozatzeko aukera emango duen ibilbide-sare bat diseinatuko da.

Idatziko den plan bereziaren helburua ingurumen-, paisaia- eta ekologia-alderdietan sentikorra den eremu baten balioa handitzea izango da, erabilera eta jardueren erregulazio egoki baten bidez aisialdiko jarduerekin bateragarri eginez.

Egoera horren aurrean, oro har definitutako funtzioez gain, Plan Bereziak honako funtzio espezifiko hauek antolatu beharko ditu:

o Paisaia: begiratokiak leku estrategikoetan kokatzea eta Artxandako hegaletan paisaiaren aldetik interes berezia duen eremua babestea.

Aisia: baimendutako eta sustatutako aisialdiko jarduerak antolatzea, bai eta dauden beste jarduera mota batzuk ere. Aisialdiko eta paisaiako ibilbideak antolatzea.

o Nekazaritza eta Basozaintza: proposamen berritzaileak praktikan jartzeko aukera, bai ustiapen-moduetan, bai espezie motetan.

Antolamendurako helburuak:

Parke guztietarako oro har definitutakoez gain, idatziko den plan bereziak honako helburu espezifiko hauek izango ditu kontuan eremua antolatzeke:

1. Bilbo eta Sondika udalerrien inguruan dauden eremu naturalen arteko lotura ekologikoa hobetzea, eta metropoli-parkearen eta Artxanda - Ganguren K.E.04 gailur-lerroaren korridore ekologikoaren arteko lotura ekologikoa bermatzea. Zehazki, G.E.11 gatazka-eremuan konektibitate ekologikoa konpontzeko aukerari ekitea, korridore ekologikoarekin berarekin partekatuta.

2. Bilboko hiri-hazkundearen perimetroarekiko muga integratzea eta antolatzea.

3. Txorierrriko bizikleta-lotura hobetzea, ahal den neurrian, Bilbo-Lezama trenbide zaharraren trazatuaren arrastoa aprobetxatuz.

4. Artxandako hegaletako paisaia-interes bereziko eremua antolatzea eta babestea.

5. Aisialdiko jarduerak ordenatzea: seinalezatutako bidezidorren sarea sortzea eta bizikleta bidezidorrak mugatzea.

6. Dauden inpaktuen ezabaketari ekitea: eremuaren ipar-ekialdeko hegalean dagoen zabortegearen ingurumen-hobekuntza, eraikin abandonatuak, hondakinak, instalazio elektriko zaharkituak, argi hodiak eta abar.

- Lurralde Antolamendurako Gidalerroek honako hau adierazten dute lur urbanizaezinean onartutako erabilerei buruz.

LAGaren Araudia

II. KAPITULUA. ESPAZIOAREN ANTOLAMENDURAKO ETA ERABILERARAKO GIDALERROAK

3. artikulua. – Ingurune fisikoaren antolamendu arloko gidalerroak.

1. – Antolamendu-kategoriak eta baldintzatzaile gainjarriak:

a) Antolamendu kategorien arabera, lurraldea eremu homogeneousotan zonifikatzen da, eremuen lurralde bokazioaren arabera, eta bakoitzaren erabilerak berariaz arautzen dira, haren ezaugarrien arabera. Funtzio bikoitza dute: lurzoru urbanizaezinean hiri-plangintzak erabiltzen dituen izendapenak homogeneousizatzea batetik, eta haiek lurralde-plangintzan eta hirigintza-plangintzan antolatzeke irizpide orokorrak ezartzea bestetik, lurzoru urbanizaezinean erabilera eta jarduerak arautzeko modua gidatuz.

b) Sei antolamendu-kategoria ezarri dira EAEko lurzoru urbanizaezina sailkatzeke:



Tlfno: 94 453 5172
Fax: 94 471 03 24
C.I.F. P4809800H

Hirigintza/Urbanismo
Goronda Gane bidea, 1
48150 SONDIKA

www.sondika.org

- Babes Berezia.
- Ingurumenaren Hobekuntza.
- Basoa.
- Nekazaritzako, Abeltzaintzako eta Landazabalekoa.
- Mendi Larreak.
- Gainazaleko Uren Babesa.

Antolamendu-kategoriak II. eranskineko 2.A idatz-zatian garatzen dira

c) ...

2.- Ingurune fisikoko erabilerak:

a) Ingurune fisikoko erabilerak bost bloketan sailkatzen dira:

...

- Eraikuntza Erabilerak: horren barruan daude lehendik dauden guneetan oinarritzen diren nahiz oinarritzen ez diren hirigintza-hazkundeak, erabilgarritasun publikoko eta interes sozialeko eraikinak, nekazaritzako ustiategiari lotutako bizitegi isolatua, bizitegi isolatua eta instalazio arriskutsuak.

b) Ingurune fisikoko erabilerak II. eranskineko 2.C idatz-zatian garatzen dira.

3.- Ingurune fisikoaren antolamenduko matrizea:

a) Ingurune fisikoaren erabileren araubidea ezartzen da antolamendu kategoria eta gainjarritako baldintza bakoitzerako, I. eranskineko 2.D idatz-zatian (ingurune fisikoaren antolamendu-kategoriak) adierazitakoaren arabera, artikuluko honen amaieran bildutako «EAEko ingurune fisikoaren antolamendu-matrizean» jaso dena.

b) Matrizeak irudikatzen duen araubidean antolamendu kategoriak eta baldintzatzaile gainjarriak erabilera batzuekin eta besteekin gurutzatzen dira eta horiek arautzeko kode bat ezartzen da:

- «1»: erabilera egokia.
- «2»: erabilera onargarria.
- «3»: erabilera debekatua. c) Erabilera onargarrien barruan:
- «21»: Nekazaritza eta basozaintzako LPSean garatzen dena.
- «2*»: Nekazaritza eta basozaintzako LPsa Trantsiziozko Landa Paisaia eta debekatua Balio Estrategiko Handian.
- «22»: Ibai eta Erreken LPSaren eta Plan Hidrologikoen bitartez garatua.
- «23»: Babes-figura aplikagarriak dauzkate (NBAP, Urdaibaiko EKZP, KBE)...edo Hezeguneen LPS edo Kostaldeko LPS.

“EAEko ingurune fisikoaren antolamendu-matriza”ren zatia:

ANTOLAMENDU-KATEGORIA	Aisia eta astialdia Jolas-jarduera Intentsiboa	Eraikuntza erabilerak					
		Aurretik zeuden guneak oinarri dituzten hirigintza-hazkundeak	Aurretik zeuden guneak oinarri ez dituzten hirigintza-hazkundeak	Onura publiko eta interes sozialeko eraikinak	Nekazaritzako ustiategiari lotutako bizitegi isolatua	Bizitegi isolatua	Instalazio arriskutsuak
Babes Berezia	3	3	3	2(3)	3	3	3
Ingurune Hobekuntza	2(3)	2(3)	3	2(3)	3	3	3
Basoa	2(1)	2 (1)	3	2(1)	2(1)	3	3
Nekazaritza eta Abeltzaintza, eta Landazabala	2(1)	2 (1)	3	2(1)	2(1)	3	2(1)
Mendi Larreak	2(1)	3	3	2(1)	3	3	3
Gainazaleko Uren Babesa	2(2)	3	3	2(2)	3	3	3

2.c. Erabilerak. Erabilera orokorren bost mota identifikatzen dira:

...

2.c.2. Aisia eta jolasa.

...

b. Jolas-erabilera intentsiboa: aisiarako, turismorako, hezkuntzarako eta ingurune naturalaren interpretaziorako erabiltzea eta baliatzea, aisia edota harrera-ekipamenduei jarraikiz, hainbat motatako jolas-jardueretarako kokaleku batera egokitzea eskatzen dutenak: kanpinak, aparkalekuak, mahai instalazioak,



Tlfno: 94 453 5172
Fax: 94 471 03 24
C.I.F. P4809800H

Hirigintza/Urbanismo
Goronda Gane bidea, 1
48150 SONDIKA

www.sondika.org

bankuak, barbakoak, iturriak, zerbitzu sanitarioak, haur-jokoak, paperontziak, hondakinak biltzeko puntu txikiak edo erabiltzen den zerbitzu eraikinen bat. Erabilera honetan integratuta hartzen dira, halaber, aire libreko kirol-instalazioak, tamaina handi samarreko eraikinak eraikitze eskatzen duten instalazio zientifiko edo kulturalak: aisia-baratzeak, hiri-baratzeak, golf-zelaiak, motordun ibilgailuen zirkulazioari lotutako jarduerak, bereziki egokitutako zirkuitutan zein interes orokorreko bideetan, jarduera antolatuetan edo libreetan.

...

2.c.5. Eraikuntza-erabilerak.

a. Aldez aurretik bazeuden gunetan oinarritutako hazkundeak: aldez aurretik bazeuden hirigune edo landaguneen hazkunde gisa pentsatutako garapen urbanistikoak. Nolanahi ere, handitze horiek bat etorri behar dute oinarrian duten guneen egiturarekin, tipologiarekin eta tamaina egokiarekin. Erabilera horrek, zehazki, lurraldean dauden landaguneen hazkundeak jasotzen ditu.

b. Aldez aurretik dauden gunetan oinarritzen ez diren garapenak: bizitegi-, industria- edo zerbitzu-izaerako hirigintzako jardunak, beren izaerari dagozkion ekipamendu, zuzkidura eta erabilera osagarri guztiak eduki ahal dituztenak eta industriaguneei lotuta ez dauden eremuetan egiten direnak, edo oinarri duten elementuarena baino hirigintza-aprobetxamendu handiagoa dutenak. Antolamendu-kategoria guztietarako debekatuta dagoen erabilera da, LPPak espezifikoki salbuespen gisa biltzen dituenak izan ezik.

c. Onura publikoko eta interes sozialeko eraikuntzak: komunitate-ekipamendu publiko edo pribatueterako eraikuntzak eta instalazioak, eta ematen dituzten zerbitzuak, beren izaera eta ezaugarriengatik, nahitaez landa-ingurunean kokatu behar dira, betiere aurrez onura publikoak direla edo interes soziala dutela deklaratu bada.

d. Isolatutako etxebizitza Lurzoru Urbanizaezinean: oin berriko isolatutako etxebizitzaren eraikuntza lurzoru urbanizaezinean, nekazaritza-ustiategiari lotu gabekoa. Categoria guztietarako debekatuta dagoen erabilera da.

e. Industria edo biltegiatze arriskutsuak: beren izaeragatik, ezaugarriengatik edo manipulaturako materialengatik arrisku larriak sor ditzaketen eta, horregatik, hiri-lurzoru edo lurzoru urbanizagarri gisa sailkatutako lurretan ezin ezar daitezkeen substantzien eta ekoizpen-prozesuen biltegiatze eta garapena.

f. Nekazaritza-ustiategi bati lotutako bizitegi isolatua: nekazaritza eta abeltzaintzako ustiategi bati lotutako familia bakarreko edo bi familiako etxebizitzek osatutako eraikinak nekazaria bertan bizitzeko, aurrez behar hori justifikatu ondoren.

Sondikako HAPOAren arabera zehaztutako plangintza bateragarria egiteko eremuaren sailkapena beste Plan (Plangintza Bateragarri) baten bidez zehazteko lagatzen da.

Izan ere, Sondikako HAPOak ez du inolako lur sailkapenik adierazten eremu horretarako, ezta lur urbanizaezina bezala legokiokeena.

Hasiera batean Onestutako Bilbo Metropolitarrako Alde Funtzionalaren LPParen berrikuspenaren dokumentuak Sondikarako proposatutako Hiri Hazkundearen Perimetroak (HHP-k) behartu egingo luke Bateragarritasun Planak zehaztu beharreko bere esparruko lurren lur-sailkapena lurzoru Urbanizaezina izatea, kontzeptu horren definizioagatik (*Hiri Hazkundearen Perimetroaren kanpoko hiri inguruko ingurunean ez dago bilduta eremuaren hirigintza-okupazioa beharrezkoa denik LPParen barruan*).

Artxandako Parke Metropolitanoa antolatzeko Babes eta Zaintza Plan Berezia proposatzen du BMAFLPPak, EHLH Legearen araberrako definizioa kontutan hartuta.

Sondika-Bilbao Plangintza Bategarria egiteko, Sondikari dagokionean, eremuaren lurraren sailkapena Lurzoru urbanizaezinezkoa izango da BMAFLPParen arabera, hark zehaztutako Hiri-hazkundearen perimetroaren kanpoaldean dagoelako.

Hala ere, Lurralde Antolamendurako Gidaleorrek jasotzen duen erabileren matrizean adierazten denaren arabera, etorkizuneko HAPBak garatu beharreko adierazitako erabilerak (besteak beste, *aisialdirako ez diren ekipamenduak eta hornidurak (osasunerako, hezkuntzarako eta abar)*), printzipioz ezin litezke lurzoru urbanizaezinean egin.

Gaur egun, bertan dauden erabilerak ez datoz bat LAGaren araudiak lurzoru urbanizaezinean onartzen dituen erabilerekin.

Izan ere gaur egun eremu hori neurri handi batean urbanizatutako eremu bat bada.



Tlfno: 94 453 5172
Fax: 94 471 03 24
C.I.F. P4809800H

Hirigintza/Urbanismo
Goronda Gane bidea, 1
48150 SONDIKA

www.sondika.org

ALEGAZIOA: BMLPParen 9.planoak zehazten duen Sondikako Artxandako aldean Hiri Hazkundeko Perimetroaren mugaketak, behin betiko onetsitako Sondikako Plan Orokorren ACP-1 eremuarekin bat egin dezan eskatzen dugu, bertan BMLPPak zehazten dituen Hiri lurzoruari dagozkion erabilerak kokatu ahal izateko.

4.2. BIZITEGI BEHARRAK. (alegaziorik egin barik)

BIZITEGI BEHARRAK

• **ANTOLAMENDU-ARAUAK**

BOSGARREN TITULUA. HIRI-HABITATA

KAPITULUA BIZITEGI-KOKALEKUEN EREDUA

66. artikulua

Bizitegi-kuantifikazioa. Beharrak eta gehieneko bizitegi-ahalmena.

EAEko LAGen 13.2.f.1 artikulua arabera, Lurralde Plan Partzialek kuantifikatu egin behar dute eremu funtzionalaren eremuko udalerri bakoitzari dagokion bizitegi-lurzorua eskaintza, eta, zehazki, lurralde-ereduaren osagaia.

Hala, LPPk eremu funtzionaleko 35 udalerrietako bakoitzerako kalkulua egiten du, LAGen IV. Eranskinean ezarritako irizpideen eta 2018-2026 aldirako erreferentzia-tauletan eskaintako zifren arabera. Irizpide horiei jarraiki, bizitegi-kuantifikazioaren metodoa bi urratsetan egituratzen da, LPPren Memoriaren 6.4.2 Atalean zehazten den bezala:

Lehenengo urratsean, bizitegi-eskaera kalkulatu da, etxebizitza nagusien beharrak, bigarren etxebizitzaren eskaria eta jenderik gabeko etxebizitzaren aurreikuspena batuz, bai eta LEZ lurralde-ereduaren osagai zuzentzailea ere.

Bigarren urratsean, gehieneko bizitegi-ahalmena kalkulatu da, aurreko eskaerari harrotze faktore bat aplikatuz, udalerriaren tamainaren arabera, eta etxebizitza hutsen berreskuratze-ehuneko bat kenduta. Bizitegi-ahalmen horri gutxieneko eta gehieneko mugatzaileak aplikatzen zaizkio (udalerriko bizitegi-parkearen % 10 eta % 50 artean), eskaintzaren esparruaren muga ezartzeko, hau da, udal-plangintzak berrikustean ezar daitezkeen etxebizitza berriko gehieneko bizitegi-ahalmena ezartzeko.

Arau hauen III. Eranskineko 1. eta 2. tauletan, hurrenez hurren, bizitegi-premiak eta 8 urterako gehieneko bizitegi-ahalmena jasotzen dira, eremu funtzionaleko 35 udalerrietarako kalkulatu..

UDALERRIA	8 URTERAKO GEHIENENKO BIZITEGI-AHALMENA, LEKa KONTUAN HARTU GABE								Plangintzaren gaitasuna		
	Bizitegi b eharrek GUZTIRA	Harrotze f aktorea biztanleriar en arabera	Behar harrotuak	Hutsik dauden etxebizitza k berreskurat zea (2% VE)	Gehieneko bizitegi ah almena, muga gehigarririk gabe	Muga gehigarriak		CR gehi. NRxFE >10%NE (*) <50%VE (**)	* **	GIS DFB 2018	UDALPL AN 2018 (SU y Uble)
						* CR gutxieneko onargarria	** CR gehieneko onargarria				
						NR	FE				
Sondika	311	2,60	809	-42	767	212	1.059	767		284	687

Bizitegi-ahalmenari bi muga gehigarri ezartzen zaizkio, proposatutako arauen aplikazio mekaniko batetik erator daitezkeen muturreko emaitzak saihesteko. Udalerriaren bizitegi-ahalmenari ezartzen zaizkion bi muga gehigarriak honako hauek dira:

Udalerri guztietan, bizitegi-ahalmena ezingo da izan hirigintza-plangintza onartzeko unean dagoen etxebizitza-parkearen % 50 baino handiagoa.

Udalerri orok planteatu ahal izango du hasierako etxebizitza-parkearen % 10eko bizitegi-ahalmena.

Azken bi zutabeetan, kalkulutako gehieneko bizitegi-ahalmenaren eskuinaldean, indarrean dagoen plangintzako ahalmen hutsari buruzko datuak daude, GIS BFAren iturrien eta 2018ko Udalplanaren arabera.

(Oharra:

Indarrean dagoen Lurralde Plan Partzialaren arabera, Sondikari egozten zitzaizkion bizitegien kuantifikazioa mugaketa hauen barruan zegoen: 1.078 etxebizitza gehienez, eta 729 etxebizitza gutxienez.

557/2016ko Foru Aginduaren arabera behin betikoz partzialki onestutako Sondikako HAPOak 473 etxebizitza berri aurreikusten ditu (zuzkidura jardueretan aurreikusitako etxebizitza berriak kontutan hartu barik (20)).

557/2016 Foru Aginduak suspenditutako eremuetan aurreikusitako etxebizitza berrien kopurua kontutan hartuta, aurreikuspen orokorra 922 etxebizitza berrietakoa izango litzateke).



Tlfno: 94 453 5172
Fax: 94 471 03 24
C.I.F. P4809800H

Hirigintza/Urbanismo
Goronda Gane bidea, 1
48150 SONDIKA

www.sondika.org

5. Hasiera batean Onestutako Bilbo Metropolitarrako Alde Funtzionalaren LPParen berrikuspenaren dokumentua ikusita honako ALEGAZIOA aurkeztea **proposatzen** dut:
ALEGAZIOA: BMLPParen 9.planoak zehazten duen Sondikako Artxandako aldean Hiri Hazkundeko Perimetroaren mugaketak, behin betiko onetsitako Sondikako Plan Orokorren ACP-1 eremuarekin bat egin dezan eskatzen dugu, bertan BMLPPak zehazten dituen Hiri lurzoruari dagozkion erabilerak kokatu ahal izateko.

6. Hau da gai honi dagokionean adieraz dezakedana.

Sondikako Udal Arkitektoa.
Ion Andoni Larizgoitia Jauregi.